


**DOKUMENTAL  
EMANALDIA ETA  
SOLASALDIA**  
Joseba Iztuetarekin



**APIRILAK 25,**  
osteguna,  
18:30

**APIRILAK 28,**  
Igandea  
09:30



**LAREORA IRTEERA**

**ERROTA EGUNA**  
Talo tailerra  
Ibaresen ate irekiak



**MAIATZAK 12,**  
Igandea,  
Goiz eta  
arratsaldean

**MAIATZAK 24,**  
ostirala

**GARAGARDO  
AZOKA**

**TRIKITIXA JAIALDIA**



**EKAINAK 8,**  
larunbata



Arama zaitetz aldizkaria  
19. alea | Apirila



**ESKERRIK ASKO!**



## Es kerrik asko ARAMA!

Altzaga eta Itsasondoko herriekin batera, Korrika batzordea sortu da aurtengoan ere. Egitarau oparoa antolatu da hiru herritan eta ekintzaz ekintza, Korrika iritsiera girotzen joan gara.

Araman bertan, martxoaren 15ean, poteo- kantu afari oparoa izan genuen eta zuen partaidetzari esker, **700€ko ekarpena** egin diogu KORRIKARI. Bejondeizuela! Horrez gain, edizio berria bezala, Aramako Udalak, herri osoaren izenean, kilometroa erosi du. Gure lehentasuna euskara eta euskal kultura sustatzea da eta bide horretan gure ekarpena egin dugu!

Martxoaren 22an, Korrika-txikia abiatu zen herriko plazatik eta giro paregabea, belaunaldi berriek, ttipi-tapa ekin zioten bideari. Lekukoak badu erreleboa! Jarrai dezagun herri hau euskaratik eta euskaraz eraikitzen.

*Queremos agradecer a todos/as los/as los habitantes de Arama por la participación en las actividades de la Korrika. Gracias a la recaudación del poteo- cena popular de ha realizado una aportación de 700€, más la compra de un "kilometro". ¡Gracias!*



**Lanbide**  
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA  
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

## Peoi kontratazioa

Peoi lanetarako, 8 hilabetetako kontratazio bat egingo du Aramako udalak. Ezinbesteko baldintzako honako hauek dira:

- 16 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago izatea.
- Goierri erroldatua izatea.
- Toki erakundeak gazteak kontratatzeko laguntzen 2024ko EGF Plus dirulaguntza deialdian ezarritako irizpideak betetzea
- Desbrozadora erabiltzen eta antzeko laneta esperientzia izatea.

Kontuan hartuko da:

Araman bizitzea eta bertan erroldatuta egotea.

*El ayuntamiento hará una contratación de un peón. Hay que inscribirse en Lanbide antes del 25 de abril.*

## Auto berria, udal beharretarako

Aldundiko dirulaguntza bati esker Aramako udalak, herri lan eta beharretarako auto berri bat eskuratu du.

Ibilgailuak dituen ezaugarriari esker mendi bideetan ibiltzeko aukera erreztuko die udal langileei.

*Mediante una ayuda solicitada a la Diputación el ayuntamiento ha adquirido un nuevo vehículo .*



## Errenta aitortpena Euskaraz

Apirilaren bigarren astean ekingo diote foru ogasunek 2023ko errenta aitortzeko kanpainari, eta aurren ere errenta aitortpena euskaraz egiteko gonbidapena egingo diegu UEMATik herritarrei.

*Este año también queremos animaros a realizar la declaración de la renta en euskara.*

